## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

## BIDE AZPIEGITUREN ETA MUGIKORTASUNAREN SAILA

**Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Saileko foru diputatuaren 902/2018 Foru Agindua, irailaren 28koa, zeinaren bidez jendaurrean jartzen den trafikoen eta ibilbideen ofiziozko aldaketa, Arabako Lurralde Historikoko bidaiaren erabilera orokorreko herriarteko errepide bidezko ohiko garraio zerbitzu publikoaren 9. linean (Vitoria-Gasteiz/Logroño), zeina AR-03 Arabako Errioxa emakida bidez esleitu baitzen**

Diputatuen Kontseiluaren 2014ko irailaren 23ko 472 Ebazpenaren bitartez, onartu egin zen Arabako Lurralde Historikoan bidaiarien herriarteko erabilera orokorreko errepide bidezko ohiko garraio zerbitzu publikoaren (AR-03 Arabako Errioxa) kudeaketa prozedura irekiaren bidez kontratatzeko espedientea, 10 urteko iraupenarekin eta 1,354 euro/km-ko lizitazioarekin.

Kontratazio espediente horrek badu administrazio klausula berezien eta baldintza teknikoen agiria, lizitazioa eraentzen duena. Dokumentu horretako eranskinetan emakida proiektua dago, eta bertan jasotzen dira eman beharreko zerbitzuaren ibilbideak eta ordutegiak eta zehazten dira atxiki beharreko baliabide materialak eta giza baliabideak.

Diputatuen Kontseiluaren 2015eko maiatzaren 19ko 248 Ebazpenaren bitartez, kontratua Líneas Regulares de Álava SL enpresari esleitu zitzaion, 1,217 euro/km-ko prezioan. Enpresa 2015eko ekainaren 29an hasi zen emakidari zegozkion zerbitzuak ematen.

AR-03 Arabako Errioxa emakidaren zerbitzuak honako linien bitartez ematen dira, 472/2014 Ebazpenak onartutako administrazio klausula berezien eta baldintza teknikoen agiriko proiektuan (I. eranskina) agertzen diren ibilbide eta ordutegien arabera:

- 7. linea: Vitoria-Gasteiz / Ventas de Armentia / Bernedo / Lagran.
- 8. linea: Logroño / Oion / Gorrebusto / Guardia.
- 9. linea: Vitoria-Gasteiz / Logroño.
- 10. linea: Logroño / Haro.
- 11. linea: Logroño / Eskuernaga.
- 12. linea: Vitoria-Gasteiz / Haro.

Antzeman diren bidaiaren behar berriak kontuan hartuta eta eragindako udalerriek egindako eskaerei erantzuteko helburuaz, Mugikortasun eta Garraio Zerbitzuak justifikazio txostena aurkeztu du AR-03 emakidaren 9. lineako (Vitoria-Gasteiz / Logroño) trafikoak eta ibilbideak aldatzeko, irailaren 28ko 1211/1990 Dekretuko (lurreko garraioen antolamenduari buruzko legearen erregelamendua onartzen duena) 77. artikulutik 80. artikulura xedatutakoa betetzeko.

Zehazki proposatzen du honako aldaketa hauek ofizioz onartzea:

— Trafiko berria gehitzea 9. linean (Vitoria-Gasteiz/Logroño), San Vicente de la Sonsierra herria sartzeko; izan ere, emakida tituluan udalerri hori 10. linean (Logroño/Haro) dago, baina egun ez du zuzeneko loturarik Gasteizekin.

— 9. linean (Vitoria-Gasteiz/Logroño) ibilbide berria sortzea, Bernedoko portutik pasatuko dena eta Nafarroako Meano eta Lapoblación herriei zerbitzua emango diena, orain arte, AR-03 emakidaren bidez, ez baitzuten zerbitzurik. Euskal Autonomia Erkidegotik pasatzeaz gain, AR-03 zerbitzua Errioxatik eta Gaztela Leondik pasatzen denez gero, aztertu egin da aurkeztutako txostena aipatutako estatuko legediak ezartzen dituen baldintzak betetzen dituen, hori baita aplikatu beharreko lege esparrua, eta hala dela egiaztatu da.



L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

Enpresa esleipendunari entzunaldia eman ostean, eta Lurreko Garraioa Antolatzeko Legearen 79. artikuluan ezarritakoa betetzearren, jendaurrean jarri beharra dago trafikoak eta ibilbideak aldatzeko proposamena.

Mugikortasun eta Garraio Zerbitzuak 2018ko irailaren 13an egindako txostena aztertu da.

Diputatuen Kontseiluaren abenduaren 9ko 692/2015 Ebazpenean xedatutakoa aztertu da, zeinak Bide Azpiegitura eta Mugikortasun foru diputatua gaitzen baituen AR-03 Arabako Errioxa emakidaren hitzarmena indarrean dagoen bitartean onartzeko kontratazio organoari dagozkion egintza formal eta kudeaketa egintza guztiak.

Horregatik, Bide Azpiegitura eta Mugikortasun Saileko foru diputatua naizen aldetik ditudan ahalmenak baliatuz, honako hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Jendaurrean jartzea trafikoen eta ibilbideen ofiziozko aldaketa, Arabako Lurralde Historikoko bidaiaren erabilera orokorreko herriarteko errepide bidezko ohiko garraioko zerbitzu publikoaren 9. lineari (Vitoria-Gasteiz/Logroño) dagokiona, zeina AR-03 Arabako Errioxa emakida bidez esleitu baitzen.

Bigarrena. Ebazpen hau argitara dadila agintzea bai ALHAOn, bai Estatuko Aldizkari Ofizialean, bai Arabako Foru Aldundiaren webgunean: www.araba.eus, eta abian jartzea hamabost egun balioduneko jendaurreko informazio aldia.

Hirugarrena. AR-03 emakida aldatzeko justifikazio txostenaren ale bana igortzea Errioxako Gobernuari, Gaztela eta Leongo Juntari, Sustapen Ministerioari, Lehorreko Garraioen Kontseilu Nazionalari eta Errepide bidezko Garraioen Batzorde Nazionalari, dagokion txostena egin dezaten 15 egun balioduneko epean, dagokion jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.

Laugarrena. Ebazpen hau behin betikoa da administrazio bidean eta haren aurka administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkeztu ahal izango da, Gasteizko administrazioarekiko auzietarako epaitegian. Horretarako, bi hilabete izango dira, jakinarazpen hau jaso eta hurrengo egunetik kontatzen hasita, uztailaren 13ko 29/1998 Legeak, administrazioarekiko auzietarako jurisdikzioa arautzen duenak, 46. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz. Hala ere, nahi izanez gero, berraztertzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio egintza eman duen organoari hilabeteko epean, jakinarazpen hau jaso eta hurrengo egunetik aurrera, edo egoki jotzen den beste edozein errekurtso.

Vitoria-Gasteiz, 2018ko irailaren 28a

*Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren foru diputatua*
*JESÚS MARÍA LÓPEZ UBIERNA*

*Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren zuzendaria*
*MARÍA ÁNGELES GUTIÉRREZ ONDARZA*



L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

## AR03 GASTEIZ-ARABAKO ERRIOXA KONTZESIOA

## Joan-etorriak eta ibilbideak aldatzea Gasteiz-Logroño linean (9. linea)

# TXOSTENA

**Laburpena**

AR03 Arabako Errioxa kontzesioa Arabako Foru Aldundiaren eskumenekoa da, eta 2015-06-29an hasi zen zerbitzu ematen. Orduz geroko emaitzak oso onak izan dira, eta bidaiari kopurua hazi egin da urterik urte. Kontzesio horrek Administrazioaren dirulaguntza du, eta tarifek, egun, % 45 arte estaltzen dute kostua. Bidaiarien kopurua eta diru-bilketa bera ere gehituz doalarik hasierako usteen gainetik, aukera sortu da zerbitzua handitzeko, herritarren eta zerikusia duten udalerrien eskaera batzuei eta besteei erantzunez.




Ondoren zenbait aldaketa proposatzen dira, kantitatez txikiak, baina kualitatez dakartzaten aldaketak direla-eta (joan-etorri berriak gehitzea, lehen kanpoan ziren udalerri batzuk sartzea, ibilbide berri bat sortzea), kontzesio kontratuaren aldaketa gisa izapidetu behar dira, Lurreko Garraioak Antolatzeko Erregelamenduaren 78. artikuluaren arabera (LGAE, irailaren 28ko 1211/1990 Errege Dekretuaren bidez onetsia), kasu horietarako ezarritako prozedurari jarraituz.

Hara zertan dautzan aldaketak:

-Joan-etorri berriak eranstea lehendik ere kontzesioaren eremuan sartuta egon arren une honetan beren artean zuzeneko harremanik ez duten herrien artean.

-Ibilbide berri bat sortzea Gasteiz-Logroño linean (9. linea), Bernedoko mendatean zehar. Hartara, garraio zerbitzu erregularrak eskainiko zaizkie bi udalerri nafar txikiri, Lapoblacióni eta Meanori, orain arte ez baitzeukaten horrelakorik, eta, beraz, aldez aurretik, herri horiek kontzesioaren eremuan sartu beharko dira.

Justifikazio txosten hau aurkezten da, edukia LGAEren 78., 79., eta 80. artikuluen araberakoa duela.

## 1. Aldaketa: San Vicente de la Sonsierra (Errioxa)

1.1. Zer biztanleriari eragingo dion aldaketak:

San Vicente de la Sonsierra: 1.014 biztanle (udalerriaren biztanleria guztira, INE, 2017)

1.2. Proposatutako lanpostuaren deskribapena:

San Vicente de la Sonsierra eta Gasteiz arteko zuzeneko loturako joan-etorri berria erantsi besterik ez du egiten. Grisez nabarmentzen da joan-etorrien matrizean proposatutako lotura berria

| | Gasteiz | Bastida | San Vicente de la Sonsierra: | Ábalos | Samaniego | Leza | Guardia | Logroño |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Gasteiz | | S | S | S | S | S | S | S |
| Bastida | S | | S | S | S | S | S | S |
| San Vicente de la Sonsierra | S | S | | S | S | S | S | S |
| Ábalos | S | S | S | | S | S | S | S |
| Samaniego | S | S | S | S | | S | S | S |
| Leza | S | S | S | S | S | | S | S |
| Guardia | S | S | S | S | S | S | | S |
| Logroño | S | S | S | S | S | S | S | |

Hasiera batean, ez zen sartu joan-etorri hori Gasteiz-Logroño linean (9. linea); izan ere, ibilbide denbora lehiakor bat lortzea lehenetsi zen, 80 minutu ingurukoa, Gasteiz-Logroño harremanerako (zela Herrerako mendatean zehar doan ibilbidetik, zela Conchas de Haron zehar doan ibilbidetik). Gure iritzian, San Vicente de la Sonsierratik sartzen den ibilbideak (5 minutu inguruko desbideratzea dakar) eragotzi egin zezakeen helburu hori, eta, bestalde, San Vicente de la Sonsierrako joan-etorri funtsezkoek, Haro eta Logroño eskualde buruekikoek, bazuten dagoeneko beren zerbitzua kontzesio honetako beronetako beste linea batekin, 10. linearekin, alegia, "Logroño-Haro Guardian zehar linearekin".

Une honetan, bi urte eta erdi zerbitzu ematen jardun ostean, AR03 kontzesioaren emaitza orokorrak, eta bereziki Gasteiz-Logroño linearenak (9. linea), oso positiboak dira. Bidaiari kopurua erruz hazi da, eta, horri esker, urte osoan zehar eutsi ahal izan zaio Gasteiz-Logroño Conchas de Haron zehar ibilbideari. Hasiera batean, ibilbide hori negurako baizik ez zen, garai horretan Herrerako mendatean zehar doan ibilbidea ezin baita ziurtatu. Erabiltzaileen eskaria dela-eta, komeni da udan ere geroz eta bidaia gehiago egitea Conchas de Haron zehar, hartara bidaiari gehiago har ditzaketen autobusak erabili ahal izango baitira.

San Vicente de la Sonsierrako Udaleko herrikideek hainbat bider eskatu izan dute Gasteizekiko zuzeneko lotura, lehengo P-12 kontzesioaren barruan bezalakoa (Gasteiz-Logroño, Guardian zehar). Esperientzia operatiboaren arabera, ustea dugu une honetan badagoela aukera eskaera horri erantzuteko Gasteiz-Logroño zerbitzuen zirkulazio denbora orokorrei eta malgutasun tarteei eragozpenik eragin gabe. Hasierako proposamena da L9 linearen barruan San Vicente de la Sonsierran geltokia ipintzea, egunean hiru bidaiatan, norabide bakoitzeko.

2

1.3. ibilbide berrien planoa eta deskribapena.




San Vicentetik sartuz, bi norabideen batez bestekoa kontuan hartuta, 1,4 km luzeagoa da ibilbidea. Eranskinean doa ibilbidearen taula zehatza, geltokiak eta distantzia partzial eta guztirakoak zehaztuz.

Aldaketa horrek ez dakar beste administrazio batzuen kontzesioekiko joan-etorriekiko kointzidentziarik. San Vicente de la Sonsierrarekiko lotura guztiak Foru Aldundi honen eskumeneko kontzesioen bidez ematen dira, eta hainbat joan-etorritan kointzidientziak gertatzea linea barnean bakarrik gertatzen da, kontzesio beraren barruan.

AR03 Arabako Errioxa kontzesioaren barruan.

"Logróño-Haro Guardian zehar" lineak San Vicente eta beste eskualde buru batzuk lotzen ditu tartean diren gainerako herriekin.

Orain L9 linean proposatzen den aldaketa honek sendotu egingo du San Vicente eta Logroño arteko lotura, eta aukera emango du Gasteizera iristeko Haron edo Bastidan autobusa aldatu beharrik gabe.

C02 Bilbo-Logroño kontzesioak San Vicente Bilborekin lotzeko aukera baizik ez du ematen.

3

1.3. Erabiltzaile kopuruan izango diren aldaketen aurreikuspena:

L9 lineako San Vicenteko geltoki berriak erabiltzaile berriak ekarriko ditu. Kalkulu erraz bat egin da, ondoko Ábalos herriko datuak estrapolatuz, antzeko ezaugarriak baititu (Errioxako autonomia erkidegokoa da, eta antzeko distantzia du dagozkion eskualde buruekiko; zerbitzua errepikaturik ematen da L9 eta L10 lineetan). Estrapolazioa dagozkien herrien arabera eta 9. linean herri horietako bakoitzean geltokia duten bidaia kopuruaren arabera egin da, zuzeneko proportzioan.

| **Viajeros Abalos 2017 en Línea 9** | | | | |
|---|---|---|---|---|
| Origen-Destino | VITORIA | ABALOS | RESTO | LOGROÑO |
| VITORIA | | 195 | | |
| ABALOS | 134 | | 41 | 223 |
| RESTO | | 61 | | |
| LOGROÑO | | 739 | | |

| | ABALOS | SAN VICENTE |
|---|---|---|
| Población | 249 | 1.014 |
| Expediciones/año L9 | 4.598 | 2.178 |

| **Viajeros/año San Vicente (previstos) en Línea 9** | | | | |
|---|---|---|---|---|
| Origen-Destino | VITORIA | SAN VICENTE | RESTO | LOGROÑO |
| VITORIA | | 376 | | |
| SAN VICENTE | 258 | | 79 | 430 |
| RESTO | | 118 | | |
| LOGROÑO | | 1.426 | | |

Laburbilduz, aurreikusten da ezen, behin aldaketa finkaturik, 600 bidaiari/urteko izango direla San Vicente eta Gasteiz artean, 1.800 bidaiari gehiago San Vicente eta Logroño artean, eta 200 bidaiari gehiago San Vicente eta gainerako herrien artean.

1.4. Ondorio ekonomikoak eta tarifetan izango diren ondorioak.

Proposatzen den aldaketak ez die eragiten erabiltzaileak ordaintzen dituen tarifei. Administrazioak daraman defizitari bakarrik eragingo dio zertxobait, aurreikusitako dirusarrerak nahiz kontzesiodunari aitortzen zaion kostua aldatuko den heinean.

Biderketa eginez gero lehen kalkulatu diren bidaiarien eta lotura bakoitzean bilduko den batez bestekoaren artean (BEZ aparte), lortuko diren dirusarrera gehiagokoak 8.520 euro/urteko dira:

-San Vicente-Gasteiz: 600*3,0 = 1.800

-Logroño-Gasteiz: 1.800*3,6 = 6.480

-San Vicente-Gainerakoa: 200*1,2 = 240

San Vicentetik sartuz, bi norabideen batez bestekoa kontuan hartuta, 1,4 km luzeagoa da ibilbidea. Kontzesiodunaren ordainsaria kalkulatzeko, km-ko prezio bat baliatzen da (KP), gaur egun 1,199 €/km-ko. Eta, horrek, guztira 2.178 bidaiari aplikatuta (363 egun, 3 bidaia norabideko), 3.655,99 euro/urteko kostu gehigarria dakar.

2.178 *1,4*1,199 = 3.655,99 euro

1.5. Ustiapenerako behar diren baliabide materialak ba ote dauden justifikatzea

Proposatutako aldaketak ez du behar kontzesioan baliatzen diren ibilgailuen kopurua aldatzerik.





L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

## 2. Bernedoko mendatea: ibilbide berria aldatzea

2.1. Zer biztanleriari eragiten zaion: Trebiñuko Konderria: 1.339 biztanle (herriak: Armentiako Bentak, Argote, Albaita, Baxauri, Obekuri).

Bernedo: 504 biztanle (herriak: Bernedo eta Navarrete).

Lapoblación: 125 biztanle

Meano: 93 biztanle

Iekora: 270 biztanle

Oion: 3.338 biztanle

Biztanleria kopuru horiek udalerrietako guztirako kopuruak dira, 2017koak, INEren araberakoak, eta berez eragiten zaien baino herrigune gehiago hartzen dituzte.

2.2. Proposatutako aldaketaren deskribapena:

L9 Gasteiz-Logroño lineak, gaur egun, bi ibilbide dauzka:

-Las Conchas de Harotik eta Bastidatik doan ibilbidea, N-1, N-124 eta A-124 errepideetan zehar (urte osoan zehar)

-Trebiñuko Konderritik, Urizaharretik eta Herrerako mendatetik doan ibilbidea, A-2124 errepidean zehar. Neguan ez beste gainerako sasoietan ematen da zerbitzu hau, apirilaren 16tik azaroaren 14ra arte. Neguan, Herrerako mendatearen garaiera handia dela eta (1.100 metro), arazoak izaten dira elurragatik eta izotzagatik, eta ez da komeni autobusak handik ohikotasunez ibil daitezen.

Orain, berriz, beste hirugarren ibilbide bat proposatzen da:

-Trebiñuko Konderri, Bernedo, Bernedoko mendate (990 metroko garaiera), Iekora eta Oionen zehar, A-126 eta A-2126 errepideetan zehar.

-Ibilbide berri horren bidez, joan-etorri berriak eskainiko dira, orain arte eman ez direnak; grisez nabarmentzen dira joan-etorrien matrizean. Nabarmentzekoa da Oion eta Gasteiz arteko zuzeneko lotura. Halaber, aukera ematen du gutxieneko zerbitzu erregular gutxieneko bat izan dadin Lapoblación eta Menao artean, lehengo kontzesioaren eremuan ez bezala. Gainerako udalerriek bazeukaten lehendik zerbitzu erregularra Logroñorekin (Iekora eta Oion, 8. linearen bidez) eta Gasteizekin (Bernedo eta Trebiñuko konderria, 7. linearen bidez).

5



L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

| | Gasteiz | Trebiñuko Konderria | Bernedo | Lapoblación: | Meano | Iekora | Oion | Logroño |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Gasteiz | | S | S | S | S | S | S | S |
| Trebiñuko Konderria | S | | S | S | S | S | S | S |
| Bernedo | S | S | | S | S | S | S | S |
| Lapoblación | S | S | S | | S | S | S | S |
| Meano | S | S | S | S | | S | S | S |
| Iekora | S | S | S | S | S | | S | S |
| Oion | S | S | S | S | S | S | | S |
| Logroño | S | S | S | S | S | S | S | |

-Ibilbidea egiteko behar den denbora bat dator beste bi ibilbideetakoekin, 85 minutu (doitzeko malgutasun tarteak kontuan hartu gabe). Alde horretatik, ez dakar zerbitzuaren okerragotze nabarmenik Gasteiz-Logroño ibilbide osoko bidaiarientzat.

-Herrerako mendatean zehar doan ibilbidearen baldintza berdinekin emango litzateke, apirilaren 16tik azaroaren 14ra.

-Baliatuko diren autobusak 10 metro luze izango dira gehienez, Herrerako mendatean zehar doan ibilbidean bezala.

-Hiru ibilbideak konbinatuz udako 7 hilabeteetan zehar, apiriletik azarora bitartean, bi helburu beteko direla bermatzen da.

-Kalitate handiko zerbitzu bat eskainiko zaie, bai maiztasunetan bai ibilbide denboretan, bi muturretako herrietako erabiltzaileei, alegia, Gasteiz eta Logroñokoei, hori baita lineako bidaiarietan multzorik handiena.

-Hiru ibilbideetan, tarteko herriei ere behar adinako zerbitzu bat eskaintzen zaie, herri txikiak eta oso txikiak izaki; eta zerbitzu hori eraginkorra eta ekonomikoa zaie. Herrietan geratuz hiriburu arteko garraio zerbitzua emanez, merkatu egiten da nabarmenki kostua, dentsitate urriko eskualde horiei bakarrik zerbitzu ematen dieten lineen aldean.

2.3. Ibilbide berrien planoa eta deskribapena

Ondoren, lehendik diren bi ibilbideak eta proposatzen den hirugarrena:

6

Las Conchas de Haron zehar




Gasteiz eta Bastida artean, joan-etorrien kointzidentzia gertatzen da AR03 kontzesio honetako Gasteiz-Haro L12 linearekin.

Bastida eta Logroño artean, joan-etorrien kointzidentzia gertatzen da AR03 kontzesioko L10 Logroño-Haro Guardian zehar" linearekin.

7

Herrerako mendatean zehar doan ibilbidea




Gasteiz eta Urizaharra artean, joan etorrien kointzidentzia gertatzen da AR03 kontzesio bereko “Gasteiz-Bernedo-Lagran L7” linearekin.

Guardia eta Logroño artean, joan-etorrien kointzidentzia gertatzen da AR03 kontzesioko L10 Logroño-Haro Guardian zehar” linearekin.

8

Bernedoko mendatean zehar proposatzen den ibilbide berria




Gasteiz eta Bernedo artean, joan etorrien kointzidentzia gertatzen da AR03 kontzesio bereko “Gasteiz-Bernedo-Lagran L7” linearekin..

Iekora eta Logroño artean, joan-etorrien kointzidentzia gertatzen da AR03 kontzesioko Logroño-Oion-Bilar-Guardia L8” linearekin.

9

2.4. Erabiltzaile kopuruan izango diren aldaketen aurreikuspena:

Bernedoko Mendatetik proposatzen diren zerbitzu berriekin batera, ibilbide batzuetako eta besteetako bidaien ordutegiak berrantolatu eta zabaldu egiten dira. Orotara, bidaia batzuk berrantolatu egiten dira, Herrerako ibilbidetik Las Conchas de Haron zeharko eta Bernedon zeharko ibilbideetara aldatuz.

| ACTUAL | | Expediciones/día | | | | Expediciones/año | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | Nº días | Conchas | Herrera | Bernedo | TOTAL | Conchas | Herrera | Bernedo | TOTAL |
| Período Vialidad Invernal | 150 | | | | | 2.602 | 0 | 0 | 2.602 |
| Laboral | 103 | 18 | 0 | 0 | 18 | 1.854 | 0 | 0 | 1.854 |
| Fin semana y Festivos | 47 | 16 | 0 | 0 | 16 | 752 | 0 | 0 | 752 |
| Navidad: 24-12 y 31-12 | 2 | -2 | | | | -4 | | | -4 |
| Período No Vialidad Invernal | 213 | | | | | 2.002 | 2.556 | 0 | 4.558 |
| Laboral | 149 | 10 | 12 | 0 | 22 | 1.490 | 1.788 | 0 | 3.278 |
| Fin semana y Festivos | 64 | 8 | 12 | 0 | 20 | 512 | 768 | 0 | 1.280 |
| TOTAL | 363 | | | | | 4.604 | 2.556 | 0 | 7.160 |
| | | | | | | Km/exp | | | |
| | | | | | | Conchas | Herrera | Bernedo | |
| | | | | | | 83,7 | 65,3 | 67,7 | |
| | | | | | | Km/año | | | |
| | | | | | | Conchas | Herrera | Bernedo | TOTAL |
| Período Vialidad Invernal | | | | | | 217.787,4 | 0,0 | 0,0 | 217.787,4 |
| Laboral | | | | | | 155.179,8 | 0,0 | 0,0 | 155.179,8 |
| Fin semana y Festivos | | | | | | 62.942,4 | 0,0 | 0,0 | 62.942,4 |
| Navidad: 24-12 y 31-12 | | | | | | -334,8 | 0,0 | 0,0 | -334,8 |
| Período No Vialidad Invernal | | | | | | 167.567,4 | 166.906,8 | 0,0 | 334.474,2 |
| Laboral | | | | | | 124.713,0 | 116.756,4 | 0,0 | 241.469,4 |
| Fin semana y Festivos | | | | | | 42.854,4 | 50.150,4 | 0,0 | 93.004,8 |
| TOTAL | | | | | | 385.354,8 | 166.906,8 | 0,0 | 552.261,6 |

| PROPUESTA | | Expediciones/día | | | | Expediciones/año | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | Nº días | Conchas | Herrera | Bernedo | TOTAL | Conchas | Herrera | Bernedo | TOTAL |
| Período Vialidad Invernal | 150 | | | | | 2.808 | 0 | 0 | 2.808 |
| Laboral | 103 | 20 | 0 | 0 | 20 | 2.060 | 0 | 0 | 2.060 |
| Fin semana y Festivos | 47 | 16 | 0 | 0 | 16 | 752 | 0 | 0 | 752 |
| Navidad: 24-12 y 31-12 | 2 | -2 | | | | -4 | | | -4 |
| Período No Vialidad Invernal | 213 | | | | | 2.151 | 1.853 | 852 | 4.856 |
| Laboral | 149 | 11 | 9 | 4 | 24 | 1.639 | 1.341 | 596 | 3.576 |
| Fin semana y Festivos | 64 | 8 | 8 | 4 | 20 | 512 | 512 | 256 | 1.280 |
| TOTAL | 363 | | | | | 4.959 | 1.853 | 852 | 7.664 |
| | | | | | | Km/exp | | | |
| | | | | | | Conchas | Herrera | Bernedo | |
| | | | | | | 83,7 | 65,3 | 67,7 | |
| | | | | | | Km/año | | | |
| | | | | | | Conchas | Herrera | Bernedo | TOTAL |
| Período Vialidad Invernal | | | | | | 235.029,6 | 0,0 | 0,0 | 235.029,6 |
| Laboral | | | | | | 172.422,0 | 0,0 | 0,0 | 172.422,0 |
| Fin semana y Festivos | | | | | | 62.942,4 | 0,0 | 0,0 | 62.942,4 |
| Navidad: 24-12 y 31-12 | | | | | | -334,8 | 0,0 | 0,0 | -334,8 |
| Período No Vialidad Invernal | | | | | | 180.038,7 | 121.000,9 | 57.680,4 | 358.720,0 |
| Laboral | | | | | | 137.184,3 | 87.567,3 | 40.349,2 | 265.100,8 |
| Fin semana y Festivos | | | | | | 42.854,4 | 33.433,6 | 17.331,2 | 93.619,2 |
| TOTAL | | | | | | 415.068,3 | 121.000,9 | 57.680,4 | 593.749,6 |

| | |
|---|---|
| Aumento de Expediciones/año: | 504 |
| Aumento de km/año: | 41.488,0 |

10

Eranskinean, L9 linean aurreikusitako ordutegi berriak aurkezten dira neguko eta udako denboraldietarako.

Ordutegien plangintza berri honetarako irizpideak hauek dira:

- Gutxienez egunero joaneko 4 bidaia eta itzuliko 4 bidaia uztartzea, errotazio gisa, Conchas de Haron zehar, bidaiari gehiago har ditzakeen ibilgailu berri baten bidez (12 eta 13 metro bitartean luze, eta 47 eta 51 jarleku artean).
- Aurreko uztartze hori egin ahal izateko, beharrezkoa da bi bidaia berri sortzea norabide bakoitzean lanegunetan:
    - “Logroño-Gasteiz, 8:00” bidaia, gaur egun Herreran zehar egiten dena udan, Las Conchasetik egingo da aurrerantzean, 12 metroko ibilgailuarekin. Trebiñu-Mendialdea zonari ordutegi tarte horretan zerbitzu emateko, bidaia berri bat sortzen da, "Logroño-Gasteiz, 7:20, Herreran zehar" izenekoa. Bidaia berri hau oso erakargarria da lanaldia edo ikasketa aldia Gasteizen 9:00etan hasten duten pertsonentzat.
    - “Logroño-Gasteiz, 7:20, Herreran zehar” bidaia berri honek itzulerako bidaia bat dakar, “Gasteiz-Logroño, 9:00, Herreran zehar” izenekoa. Itzultzeko bidai horrek badu merkataritzarako ahalmen bat, nahiz eta norabide nagusiarena baino txikiagoa.
    - Baina merkataritzazko ahalmen hori dela-eta, bi bidaia horiek, "Logroño-Gasteiz, 7:20" eta "Gasteiz-Logroño, 9:00", aurrerantzean ere eskainiko dira neguko sasoian, Las Conchaseko ibilbidea“erabiliz.
- Behar adinako zerbitzua ematea bitarteko herriei, asteko ordutegi tarte guztietan, kontzesioko gainerako linea laburrekin batera (L7, L8, L10, L11 eta L12). Bereziki, eskaera handieneko orduetan ibilbide guztietan zerbitzu ematea da asmoa, LGAEaren 78.3 artikuluaren hirugarren paragrafoan ezarritakoaren arabera. Aurreko aldaketa

horiek urteko 504 bidaia gehiago ekarriko dituzte, 2016ko neguan, eta 298 urteko gainerako sasoietan. Eta 41.488 km gehiago urteko guztirakoan.

Aurreikuspena da urteko 504 bidaia gehiago izango direla, eta, hartara, linearen erabiltzaileen kopuruan 4.000 bidaiari gehiago izango direla lehenbiziko urtean, eta 8.000 bidaiari urteko 3 urteko epean, behin erabat finkatu ostean. Erabiltzaile berri gehienak Gasteizkoak eta Logroñokoak izango dira; halaber, bidaiariak gehitu egingo dira Oiongo udalerrian, ez horrenbeste, baina igarri-igarrian. Zerbitzu emango zaien herri berrietan, Lapoblaciónen eta Meanon, haien neurri txikia dela eta, hango bidaiari kopurua ez da nabarmena izango linearen guztirakoan. Gainerako herrietan, lehendik ere zerbitzu erregularra ematen baitzitzaien, espero da eskaerak hazteko joerari eutsiko diola, eskaintzan izango diren etengabeko hobekuntzen ondorioz.

2.5. Ondorio ekonomikoak eta tarifetan izango diren ondorioak.

Proposatzen den aldaketak ez die eragiten erabiltzaileak ordaintzen dituen tarifei. Administrazioak daraman defizitari eragingo dio bakarrik, aurreikusitako diru-sarrerak nahiz kontzesiodunari aitortzen zaion kostua aldatuko den heinean.

Biderketa eginez gero lehen kalkulatu diren bidaiarien eta lotura bakoitzean bilduko den batez bestekoaren artean (4,45 €/bidaiariko, BEZa aparte), lortuko diren dirusarrera gehiagokoak, gutxi gorabehera, 17.800 euro izango dira lehen urtean, eta 35.600 hiru urtean.

Kostuen aldetik, 41.488 km/urteko gehituko dira. Kontzesiodunaren ordainsaria kalkulatzeko, km-ko prezio bat baliatzen da (KP), gaur egun 1,199 €/km-ko. Hala, beraz, gehiagoko kostua 49.744,11 euro/urteko izango da.

11

Horrenbestez, aurreikuspena da defizit gehigarria 31.944,11 euro izango dela lehenbiziko urtean, eta 14.144,11 euro hirugarren urtean.

2.6. Ustiapenerako behar diren baliabide materialak ba ote dauden justifikatzea

AR03 kontzesioak 11 ibilgailu ditu atxikita (haietako 7, 10 metrokoak, eta 4, 9 metrokoak), eskaera urriko lineei eta Herrerako eta Bernedoko mendateei egokituak. Halaber, beste ibilgailu bat atxikiko zaio kontzesioari, 12-13 metro luze (47-51 jarleku + MUP jarleku 1), Gasteiz-Logroño Conchas de Haron zehar ibilbiderako.

## 3. Balantze ekonomiko agregatua

| | L9 | | TOTAL |
|---|---|---|---|
| | San Vicente | Bernedo y reorganización | |
| Variación Km | 3.049,20 | 41.488,00 | 44.537,20 |
| *PPK (€/km) considerado* | *1,199* | | |
| Variación Coste | 3.655,99 | 49.744,11 | 53.400,10 |
| Variación Recaudación | 8.520,00 | 17.800,00 | 26.320,00 |
| Variación Déficit | 4.864,01 | -31.944,11 | **-27.080,10** |
| Incentivo de Demanda | | | 0,00 |
| Total pago a Empresa (mayor pago) | | | **-27.080,10** |

## 4. Ondorioak

Aurreko aldaketa horien deskribapena eginik aurreikusitako bidaiari berriak eta horien kostu eta dirusarrerak zehaztuz, agerian geratzen da ezen joan-etorri berriek ez daukatela ustiapen ekonomiko beregain bat eramateko besteko neurririk, eta osagarriak direla AR03 Arabako Errioxa kontzesioan.

12

1. Eranskina. AR03 Arabako Errioxa kontzesioko bidaiarien eboluzioa

| AR03 RIOJA | Enero | Febrero | Marzo | Abril | Mayo | Junio | Julio | Agosto | Septiembre | Octubre | Noviembre | Diciembre | TOTAL |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **2014** | 13.907 | 13.204 | 15.393 | 14.358 | 16.050 | 16.004 | 16.174 | 15.504 | 16.767 | 17.400 | 13.963 | 13.336 | **182.060** |
| **2015** | 12.120 | 12.116 | 13.068 | 13.740 | 14.436 | 13.645 | 17.077 | 18.097 | 19.617 | 19.099 | 17.080 | 16.467 | **186.562** |
| **2016** | 15.643 | 15.891 | 17.551 | 17.608 | 19.396 | 20.220 | 21.404 | 22.266 | 22.274 | 23.392 | 20.396 | 19.617 | **235.658** |
